



2007 udaberriko

BERTSO SAIOAK

PROGRAMA

Gaiak

Santutxuko Bertso Eskola

Apirilaren **27a**

20:00etan
Begoñako Udaltegian

Maiatzaren **5a**

13:00etan
Santutxuko Karmelo
plazan

Maiatzaren **12a**

13:00etan
Santutxuko Karmelo
plazan

Maiatzaren **19a**

13:00etan
Santutxuko Karmelo
plazan

Emetik Bertso Kabareta

IRATXE IBARRA
ONINTZA ENBEITA
OIHANE PEREA

ANDONI EGAÑA
AITOR MENDILUZE
MAIALEN LUJANBIO
SUSTRAI COLINA

ARKAITZ ESTIBALLES
ETXAHUN LEKUE
FREDY PAYA
XABI PAYA

IGOR ELORTZA
JON MAIA
SEBASTIAN LIZASO
UNAI ITURRIAGA

Antolatzaileak:



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

bertso

2007ko martxoa
97. zkia. Doan

Korrika gurean
Oñarriak taldea gogoan
San Frantziskito parrokia

Joseba Gallaga

"Pena litzateke pala galtzen uztea
Bizkaian jokaturako kirola delako"

Barikua

Zapatua





Begoñako errepublika Miribillatik ikusita (1880)

Aurreko zenbakian Atxuri euki gendun txoko honetan protagonista. Honetan be Atxuri begi bistan dekogu, baina baita goialdea be bai: Zabalbide, Solokoetxe, ... Atxurin ederto baten ikusten doguz tren geltoki zaharra eta ospitalea, baita geroago García Rivero eskola egin eben orubean egoan etxea, lorategi eta guzti. Goian, ostera, Sokoetxe Kaxa, Larrinagako kartzela eta inguruetako, solo, baserri eta zuhaiztiak.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia4	▶ Inkesta19
▶ Korrika5	▶ Mahatsberriak20
▶ Begoña eta euskerea8	▶ Mendia: Supelegor25
▶ San Frantziskito parrokia10	▶ Hezkuntza: Euskararen Astea26
▶ Asaken bertikal12	▶ Oñarriak taldea28
▶ Elkarrizketa: Joseba Gallaga15	▶ Horoskopoa/Agenda30

Ajugarrapala esango leuke oin salaon batek baino gehidxaok. Ta ez dakigu hori esan hori nondik datorren, baie, holantxik esan dotzie Deportiboko palisteri, ajugarrapala, baie han ez. Iguel antxineko modura eleixeko hormara. Iguel San Franziskitokora berrogeitte hameka urteik zelebretako. Kontue da honeik eleixe modernoan hormak ez direzela ixiten biher dan modukoak ezta palan ibilteko be. Naturela ba abadieri anibersaridxoak ahiztutie, halango irregularra ixiten da dana ta!

Tire ba! Manistak gero ta famosoago ta palistak, puntistek ta enparauek bizi badirez be ez dakigu jakin. Ta aittu zenbat dabiltzezen Txurdinagako polideportiboan ta beste frontoietan palan ta holan. Ez dakit ba palakortan ibilteko sasoi ete den datorrena.

Begoñen eukin dogu paliste ona Gallaga, ta palan egitteko aiuntamentue ta frontoie Zabalbiden. Oin hormie buruegaz joten ez badogu,...

Bittartien atzera pasau direz hametik horreik euskeraz karran egin biher dala diñoienak. Betik esaten ixin dotzegu euskeraz (gauze guztidexek lez) hoba ixiten da lentoperoseguro egittie. Ta ez arin-aringe egin, ta gero atzera hasi biher. Ez dozue ikisten honeik Bertonekoak zelan egitten daurien? Gauzek hilien behin bota, ondo pentsaute, mastikaute ta egosite, astiro-astiro, baie

ondo-ondo esanda gauzok, leiduteko denboreagaz. Ta ez betik atzera ta aurrera.

Total, honeik ez daukie soluziñorik. Egundoko txaparradie bota, gabaz, astelehena... Ta danak karran furgonetien atzetik, halango brinko-music bategaz. Emoten dau halango berbena mobile.

Ta hamengo bazterrak danak egin, Egirletan gora, ta han Artxandan pasau dotzie enkarue Sondikekoeri. Ta hareik be pozik segidu Derio, Zamudixdo, Lezama ta harantzago.

Eskerrak ez dauriela leidu (leiduten?) Bertoneko historiadorien kronikek. Ze, orduen Artxandara igon ta enkarue hango aldekoeri pasaute, aprobetxauko leukie hareik musikiegaz entretenidute dabiltzezela mugerri batzuek harantza mugiduteko. Auzokoen artien demanda apur bet egon biher da betik, ezpabere, zelango biximodu zikue ixingo littike hau?

Abadie lez, Santutxuko batzueri etorri jakie akordura derrepentien gazte denboran kantari ibili ziriela, ta oin diskoan batu dauriez orduko kantuek. Hamen gauzekaz belu akordatu baie akordaten gara ba.

Aber karran egin ostien Berton zelan leiduten dan akordaten bagara.

GURE BAZTERRAK

HARO PLAZAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Santutxu aurkintzan topatu geinke Haro plaza, muga-mugan dagoana Santutxu eta Txurdinagaren artean. Izan be, plaza honetan etxe-multzo handiak dagoz, eta beraren aldamenetan Zabalbide, Santa Klara eta Cocherito Bilbokoaren kaleak dagoz.

Plaza hau egon zan lekuan Santa Klara komentua egon zan, baina lekaimeak bertan behera laga eben paraje hau Artebakarrera joateko, hau da, Bilbotik Mungiarako kaminora. Izena zor deutso kale honek Errioxa Garaiko uriburua dan Haro herriari, eta horren arazoia da handik datorrela Bizkaiko Jaun eta Andreen leinua.

Familia honetakoa dogu, besteak beste, Bilbo fundatu ebana, On Diego Lopez Harokoa, V.a, edo 'Sarkin'ezizenez ezagutu izan zana. Izen horregaz batera, Maria Diaz Harokoaren kalea topatu geinke Bilboko beste toki baten, izan be, On Diegoren ondorik Bizkaiko Andra izan zana, eta 'Ona' ezizenez ezagutu izan zana.

Plaza honeri, Santa Klarako komentuaeren lekuan, izen barria emoteko erabagia hartu eban Bilboko Osoko Bilkurak 1980ko bagilaren 4an, eta hori egiteko zioa esker ona emotekoa izan zan, Bilbo izena ipini jakon-eta Haro herriko kaleetarik bati.

GOTZON LOBERA REVILLA

korrika

KARRANTZA-IRUÑEA 2007 MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era

KORRIKA15, EUROIPEAN INDARTSU

Milaka euskaltzalek lagundu zuten euskararen aldeko lasterketa

Euripean eta atzerapen handiz ailega zen gurera. Gauaz, gainera. Astelehen buruzurrian. Igual da. Korrika Korrika da, geure bihotzean daramagu. Barru-barruan. Denok garelako ezinbesteko. Inor ez delako bera bakarrik ezer. Etengabeko ahalegina da Euskal Herria euskararen herria izan dadin.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARGITARATZAILEA:

Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:

Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004

Tfnoa:

94 473 54 48

e-posta:

berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA:

Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:

Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez
Ane Zabala

ARGAZKIAK:

Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:

Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Berto Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,

Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA

PUBLIZITATEA:

Koldo Urrutikoetxea,
Ane Zabala
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:



1.900



Jende andanak egin zuen Korrika-15 martxoaren 26ko iluntzean gure kaleetatik. Lehenengo Udaletxean eta gero Iturrigidetik gora, Santutxu kalea, Basarrate, Sei Izar (Iturriaga) eta Txurdinagatik Otxarkoagara. Bertatik atzera be Txurdinaga eta Zabalbidetik gora, Arabella ondotik, Artxandaraino. Horixe izan zen bere ibilbidea.

Berandu heldu zitzaigun, ia 40 minutuko atzerapenez. Gau zarratua zen ailega orduko. Euritsua gainera, zaparradak ia etenik gabe bata bestearen atzetik. Ez dago arazorik. Milaka lagun zain egon ziren gure kale eta plazetan Korrika noiz etorriko. Euretari askok eta askok karra egin zuten. Beste askok txalotu, animuak eman eta euskararen alde oihukatu egin zuten. Sekulako giroa gau goibel hartan.

Horrelaxe ikusi genuen lekukoa eskurik esku, han gazteak hemen ikastetxeak, bestean konpartsak, hurrengoan sindikatuak. Presoen argazkiak ere beti lagun, beti aldean, beti aurrean. Eta euskararen aldeko mezuak, ozen, kaleetan gora azken bazterreraino heldu arte. Paraje guztietan jakin zutelako Korrika-15 gurera heldu zela. Hurrengoa iritsi orduko lan gehiago egin beharko dugu gure hiria euskaldunagoa izan dadin.




Argazkiak: Aiol

BEGOÑA ETA EUSKERA

XVII. mendean Begoñak auzitegian defendatu behar izan zituen bere mugak. Izan ere, Zamudio eta Galdakok estu hartu nahi izan zuten Ganguren aldeko mendi bazterrak norenak ziren erabakitzerakoan. Horri esker, alderdi horretako leku izenak 'entzun' ditzakegu.

ZAMUDIO ETA BEGOÑA ARTEKO MUGAK ARAKATZEN



1669an Zamudiok eta Galdakaok beretzat eskatu zuten Ganguren aldeko goialdea, Gudubikolandatik Gangurengo gainera arteko eremua. Begoñak be beste horrenbeste egin zuen. Auzitegira jo zuten, Korrejido-arearen aurrera. Herri bakoitzak bere lekukoak aurkeztu zituen, baita agiriak ere.

Begoñak 1654an egindako munarri bisitaren agiria eraman zuen. Urte hartako abuztuaren 16an egin zuten, Mateo Taborga eta Juan Gotxikoa fiolak (alkateak) buru zituztela. Gainera, Domingo Gana, Martin Landaeta eta Mendikoetxea auzoko Domingo Berreteaga. Izan ere, auzo horretan hasi zuten bisital-

dia. "En el barrio de Mendicoechea de la anteyglesia de Santa Maria de Vegoña" idatzi zuen Zarraga eskribauak. Gaur egungo Santo Domingo ganetik hurrean zegoen.

Bisita hartan lau mugarri topatu zituzten. Lehenengoa Mendikoetxean bertan, gaztainadi baten gerizan. Bigarren munarria gorago aurkitu zuten: "subiendo al puesto que llaman Oxinburunaga pegante al arroyo de agua que baxa desde la casa de Agirleta", haritz handi baten alboan agertu zen. Izan harrizkoa zen, "con su cruz y testigo". Gurutzea zeukaten eta baita testigoak, munarria bertan zela esan gura zuten harriak alegia. Erreka hori, lekukoen

arabera, Agirletatik Zamudioko Galbarriatu auzora jaisten zen.

Hirugarren mugarria Aranburu izeneko parajea agertu zen, "cerca del camino que ba para Lezama junto a unos espinos". Eta handik, azkenera joan ziren, Gangurengo goialdera.

Domingo Zuri Arbolantxa 70 urteko gizona zen, XVII. mendearekin batera jaioa beraz. Bere akordua kontatu zituen. Behin baino gehiagotan ikusi ei zituen "que los fieles y vecinos de la dicha anteyglesia de Vegoña yban en procesion asta la dicha cruz de piedra con algunos sacerdotes y que en dicha cruz rezaban". Gurutze hori Gangu-



rengo lepoan zegoen eta mahatsorriek euren herriko azken muga gisa aldarrikatzen zuten. Domingo Zurik berak aitortu zuen, esanez ba ze "después de haber rezado pasavan con su procesión adelante a la hermita de Santa Marina donde ni de la cruz asta la dicha hermita no tienen jurisdiccion los dichos fieles y vecinos de Vegoña".

ZAMUDIO

Albo-herrietan, jakina, ez zuten horrela pentsatzen. Zamudioko fielek sutsu defendatu zuten Begoñaren akabua zela "el alto del somo que llaman de Udubio landa". Hori txostenean zehar sarritan aipatutako parajea da eta, aditu batzuen arabera, jatorrizko izena Gudubikolanda izan ei zen, bertan bandoetako garaian gertatutako gatazka baten gomutaz. Hala mahatsorriek nola zamudioztarrek eta galdakaoztarrek antzeko ize-

nak erabili zituzten, eskribauak idatzi zuena aintzat hartuz gero behinik behin: "Cudubio landa", "Curubio landa" -kurubioa erle handia da-, eta "Gudubiolanda o zelaya".

Bada, euren iritziz, landa horretatik muga doa "en derechura por las piedras que llaman Arriaynstas y de allí endereza a la cruz que está en lo alto que llaman de Mendigana". Zamudioko fielek esan zuten, eurena zelako konpondu zituzten "las calzadas que están en dicho término asta lo alto de Mendigana donde está dicha cruz cerca de la ermita de Santo Domingo de Vegoña". Gaur egungo Santo Domingo gainak ermita hari zor dio izena. Baina argi dago hori baino lehen Mendigana erabili zutela alderdi horretan.

Bestetik, harri haiak, Arriaiztak, begoñarren iritziz ez ziren mugarriak, berez agertutako haitzak

baino. Are gehiago, mahatsorriek salatu zuten, Ganguren eta Agirleta artean egondako mugarriak azken hilabeteotan desagertu ziren: "algún ynteresado los a harrancado con malicia". Pedro Lukundiz zamudioztarrek Begoñaren alde deklaratu zuen eta Aranburu aldeko mugarriari Elorritxueta deitu zion. Gogoratu elorri artean zegoela, 1654ko bisitan idatzi zutenaren arabera.

Azkenik, galdakaoztarrek 1603ko apeo bat aurkeztu zuten. Urte hartan euren herri basoen zabala zehaztu zuten. Ganguren aldean honelako deskribapena egin zuten: "y el [mojón] qu está en el somo de la sierra de Arriçurieta que divide e señala por sobre Nicolaetagan asta todo el campo de Guduguien zelaya que es de este pueblo e dende asta Ganguren". Arrizurieta, Nikolaetagan - Mikoleta bazen behealdean-, Gudugienzelaia...



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

MARTXOAREN AMAIERA OSPAKIZUN GARAIA IZAN DA SANTUTXUKO SAN FRANTZISKITO ELIZAN

laz mende erdia bete zen parrokoa izendatu zutenetik, baina '50 gehi bat' urte ospatu dute



Ondo pasatzeko ez ezik, gogoetarako ere erabili nahi izan dituzte martxoko ospakizunak eta San Frantziskiton egiten den lana auzoari erakutsi nahi izan diote. Izan ere, arlo erlijiosoarekin batera, behar sozialak ere garrantzia handia du elizaren eguneroko jardunean. Gaur egun, gero eta jende gutxiago erakartzen du erlijioak eta, parrokoa mahatsorrian behintzat, argi daukate auzoetako elizen etorkizuna behar gorriean daudenei laguntzean dagoela. Urteurrena, hortaz, etorkizunera begirako gogoeta ere izan da, neurri batean.

Testua: Dabi Piedra Argazkiak: Dabi Piedra/Berton

Roman Landerak 17 urte luze daramatza San Frantziskito elizako parroko, eta urteurreneko ospakizunen bultzatzaile eta antolatzaile nagusia izan da. Baina, aitortu digunez, meritu guztia ez da berarena, jende askok lagundu dio ekitaldiak prestatzen, elkarlanaren bidez lortu dute ospakizunen arrakasta eta auzotar guztiei eskerrona adierazi nahi die emandako laguntzagatik. Esaterako, urteurrena iragartzeko erabili zen kartela gazte batek diseinatu zuen, bere kontura, eta ondoren, Roman parrokoari eman zion irudia.

2007. urte honetan, bi data gogoratu dituzte, beraz, San Frantziskito santutxuar elizan.



Alde batetik, ermita izatetik parrokoa izatera pasa zirenetik 51 urte igaro dira eta, bestalde, elizari izena ematen dion Frantzisko Paulakoa santua hil zeneko bosgarren mendeurrena ere aurtengo apirilaren 2an ospatu da. Parrokoa izendapena jaso aurretik, XIX. mendeko ermitatxoa zen San Frantziskito, baina industrializazioaren eraginez, Santutxuko eta beste hainbat auzotako populazioa izugarri hazi zen eta 1956an, Gupide gotzainak parrokoa mordo sortu zuen, tartean aipagai duguna. 2006an, hortaz, mende erdia ospatu zuten Bizkaiko parrokoa ugarik, eta orijinaltasuna lortzeko asmoz, San Frantziskiton, 50 urteak barik, urte bete beranduago "50 gehi

2007ko martxoa - 97. zkia.

bat" ospatzea otu zitzaien, Roman Landerak parrokoak azaldu duenez.

Hain efemeride bitxia ospatzeko beste arrazoi bat ere badago. Hain zuzen ere, San Frantzisko Paulakoaren heriotzaren bosgarren mendeurrenarekin elkartu dituzte ospakizunak, 1507an hil baitzen. 1416an jaio zen Kalabrian eta besteak beste, Fraide Minimoen Ordena sortzeagatik da ezagun San Frantzisko Paulakoa. Euskal Herriarekin ez dauka harreman argirik, ordea, eta ezin dugu jakin zer dela eta jarri zioten bere izena Santutxuko ermita hari. Santuaren irudi txikia dago elizaren barruan eta, horre-

kasu honetan ere, zaparradak tarteko, parrokiak dituen lokaletara aldatu behar izan zituzten. Arratsaldean, Garaizarko Mahatsorriak abesbatzaren kantaldi arrakastatsua egon zen.

Ekitaldi nagusiak, baina, martxoaren 25erako erreserbatuta zeuden, iganderako hain zuzen. Meza berezia ospatu zen lehenik eta, ondoren, bazkari herrikoi jendetsua egin zuten, 110 santutxuar inguru bildu zituena. Apirilaren 2an, San Frantzisko Paulakoaren omenezko meza bereziarekin amaitu ziren ospakizunak, lunch eta guzti, zehazki egun hartan bertan bete baitziren bost mende santua hil zenetik.

eta azkenaldian badirudi elizara joateko ohitura galtzen ari dela gure artean. Hori dela eta, martxoaren amaierako ospakizunak gogoeta sakona egiteko ere erabili nahi izan dituzte San Frantziskiton. Roman Landerak ondo gogoratzen du bera Santutxura etorri zenean hiru parroko zeudela elizan eta orain bera bakarrik geratu da. Are gehiago, gaur egun Santutxu-Bolueta inguruan dauden zortzi parrokiatik "etorkizuneari hiru zuzeneko geratzearekin nahikoa" litzatekeela argi dauka Romanek, eta elizen arteko elkarlana bultzatzea ezinbesteko ikusten du.

Etorkizunaren aurrean, Roman



gatik, auzotarrek San Frantziskito gisa ezagutzen dute.

EKITALDI ARRAKASTATSUAK

Bi efemeride horiek gogoratzeko ekitaldiak martxoaren 22tik 25era ospatu ziren. Hasteko, San Frantziskito elizaren historiari eta bertan egin izan diren ekintzei buruzko DVD proiektioarekin hasi ziren. Martxoaren 23ko arratsaldean, berriz, Gaztedi dantza taldeak Euskal Herriko dantzen erakustaldia egin zuen, elizaren barruan, kanpoaldean euria ari zuen eta. Hurrengo goizean, umeentzako jokoak eta gazteentzako tailerrak zeuden aurreikusitako elizaren aurreko plazatxoan baina,

Horretaz guztiaz gain, egun horietan zehar, argazki zaharren erakusketa egon zen elizaren barruan ikusgai eta bestalde, San Frantziskiton bertan antolatzen diren tailer ugarietan egindako produktuen merkatu txikia paratu zuten Boluetan. Hor lortutako dirua ospakizunak ordaintzeko bideetako bat izan zen.

ETORKIZUNARI BEGIRA

San Frantziskito eliza parrokoa izendatu zutenetik 51 urte joan dira eta hazkunde handia izan du tarte horretan. 1970. urtearen inguruan ermita zaharra utzi eta eraikin berria ireki behar izan zuten. Garai onenak joan dira, ordea,

Landerak gauzak argi eta garbi ikusten ditu: "Auzoaren alde lan egin behar dugu, auzotarregana hurbildu, gure jardunak meza ematetik haratago joan behar du". Horregatik, San Frantziskito aldatzen ari da azken urteotan, eta behartsuenei edo baztertuei laguntzea beren nortasunaren zati bihurtzea lortu dute. Hainbat pertsonari aterpea eta babesa ematen diete eta, gainera, lana aurkitzeko zailtasunak dituztenentzako tailerrak eta ikastaroak antolatzen dituzte urtean zehar. Romanen ustez, behar gorrian daudenei laguntzean dago San Frantziskitoren zentzu eta nortasun berria.

KIROLA ETA LANA UZTARTZEKO, ASAKEN GAZTE KOOPERATIBA ALDAMIORIK GABEKO ALTUERATAKO LAN BERTIKALAK EGITEN DITUZTE BESTELAKO FILOSOFIAZ



Asaken jende gazteren kooperatiba da. Bere filosofia lanaldi apur bat murriztagoa izatea da, denbora librean lortuz, bai aisialdirako zein bestelako kontutan aritzeko. Asakenen mahatsorri bi daude lanean (Leire eta Oskar) beste bederatzi gazterekin batera. Lan taldearen bereizgarritasunetarik bat kirola eta lana uztartzea da.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Asaken

Duela bizpahiru urte lagun talde batek lan bertikaletan aritzeko gazte kooperatiba sortu nahi zuen. Argi zeukaten egungo lanaldiak baino apur bat murriztagoak izan nahi zituztela bestelako gauzetarako, batez ere, kirolean aritzeko denbora izateko. Asmo honi eutsi nahian kooperatiba sortu eta altueratan zuten trebakuntza praktikan jartzeari ekin zioten Asaken eratu. Goizez baino ez dute lan egiten.


Bilboko Autonomia kalean dute bulegoa eta guztira hamaika pertsona daude lanean. Ruben, Leire, Eneko eta Oskar bulego eta marke-



ting lanetan dabilta. Gainontzekoek bi lan talde osatzen dituzte bertikaletan lan egiteko (Jon Andoni, Aitor, Ander, Txefo, Pipe, Jimmy eta Frodo), badaude ere bulego zein altuerako lanetan dabiltzanak ere.

ALPINISMOAN

Kooperatiba elkarte honetan lana eta kirola uztartzen dituzte, izan ere, lan bertikaletan aritzen diren hauek eskalada, alpinismo zein espeleologia bezalako kirolelan jarduten dute. Oskarrek dioenez, "lan egiteko trebezia da azken batean beharrezkoa dena, eskegita ego-




Asakeneoek materialik onekin egiten dute lan, izan ere, inbertsioa eta onura baita langileentzat. Elkarte honetako langileek ikastaroak jaso dituzte Bartzelonan, Barakaldon zein Bilbon lan teknikak hobetzeko batetik eta laneko arriskuen prebentziarako bestetik. Era berean, haiek ere ikastaro laburrak eman izan dizkiete tokian tokiko langileei. Asakeneoek esanetan, "momentuz bizpahiru urteko trebakuntza

tearena garrantzitsua bada ere, igeltserotza, edo eta bestelakoak egiten jakitea garrantzitsua da". Lan taldekoek gehitu dutenez, "Praktikatzen ditugun kirolak altuerarekiko erraztasuna lortzen laguntzen digute".

Lan egiteko dinamika zuzenkoa da, bezeroa kontaktuan jartzen da kooperatibarekin eta Leirek dioenez, "Eneko teknikaria lana ikustera doa eta fatxada bat bada, adibidez, argazkiak egin eta horren arabera aurrekontua prestatzen dugu inongo konpromiso barik". Beste batzuetan, ordea, konplexuagoa bada, biltzen dira eta proiektua planifikatzen dute.

KALITATEA

Elkartekoek orain 'Premie' izeneko kalitatezko titulua jasotzeko lanean dihardute, eta uda baino lehen eskuratzea espero dute. Leirek dioenez, "gu lan egiterakoan ere erraztasuna eta produktibitatea lortzen laguntzen digu eta bezeroentzat segurtasun adierazlea da".



A gapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1. ezk
Tlfnoa: 944336916 -Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko Ilurriaga 96.
herriko taberna

Gosari bereziak:
Kalea + pintxoak 1,50 €.



Euskal Herria
AURRERA!!



REGISTRO GARAZAR

JESUS GALINDEZ N.º 10
Telf. 94 479 912/26 - GARAZAR - BILBO



SEGURTASUN SOKAK

Mota askotako lanak egiten dituzte gazte hauek. Fatxada lanak egiteaz gain bestelako proiektuak ere badituzte. Esaterako, segurtasun sokak izenekoak, hau da, zubi baten beheko partean kableak jarri bertan langileek lan egin dezaten. Asakenen, ingeniariak, elektrikariak... badaude, gehienetan altueratan mota honetako lanak egiten dituztelako.

Aldamioak ez erabiltzeak baditu bere abantailak, Asakenekoen iritzi-z, "lan egiteko erosoagoa eta dinamikoagoa da, lapurretak ekin ahal dira, eta dirutza aurrezten da, askotan gauza zehatzak egiteko ez baitauka zentzurik".

Elkarte honek dagoeneko hainbat lan egin ditu, besteak beste, Abusuko polikiroldegian, Azpeitiko institutuan, Balmasedako San Juan elizan, Bilboko Ogasuneko eraikinean, eta beste hainbat eraberritze lan. Oskarrek gaineratu duenez, "gero eta lan espezializatuagoak lortu nahi ditugu, lan taldean badaude bost-hamar urtez altueratan lanean dihardutenak, beraz, lan bereziagoak egiteko pertsonala ere badugu".

eskatzen zaio lanera datorren pertsonari baina aurrerantzean ikastaroak presta ditzakegu neska-mutil gehiago sar daitezten istorio honetan".

ESPEDIZIOAK

Asakenek kirolarekiko uztartze lanetan mendi espedizio bi babestu

ditu. Batetik, Iñigo Altubek Everestera egiteko duen Ezkerraldeko espedizioa, eta bestetik, iazko udan Cho-Oyura Andoaingo Iker Iriondok eta Leioako Koldo Zubimendik egindako igoera.

Kooperatiba gazte honek egiten duenari buruzko informazio gehiago asakenvertical.com-en duzue.


e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

JOSEBA GALLAGA

"Pena litzateke pala galtzen uztea Bizkaian jokaturako kirola delako"

Kinka larrian dago gaur egun pala jokoaaren arlo profesionala, Deportiboko jaialdiak antolatzen zituen enpresak bere jarduna bertan behera laga eta gero. Orain Diputazioak dirua jarriko duela iragarri du. Joseba Gallaga pala pilotari profesionala izan zen gerra ostean Euskalduna frontoian. Orduko eta gaur egungo kontuez zer kontatu asko dauka eta horrela erakutsi digu ondoko elkarrizketan. Begoñako pilota giroa ere gogora ekarri digu.

Testua: *Hektor Ortega*
Argazkiak: *Aiol*



Zure umezaroan pilota zaletasun handia zegoen ala beste kirolen mende zegoen?

Nire kasua azalduko dizut, ni ume bakartia izan nitzelako. Bilbon jaio nintzen, 1928an. Gure gurasoak Etxebarrira aldatu ziren nik urte bi nituela. Etxebarrin frontoi klasikoa zegoen, frontoia eta plaza batera zena. Han esku pilotan jokatzeko zen. Han hasi nintzen ni. Gero Bilbora bueltatu ginen eta nik anaia zaharragoen zaletasunak hartu nituen. Bilbon sasoi hartan baziren frontoiak. Hamahiru urte nituenean Euskalduna frontoira pala partiduak ikustera joan nintzen. Aita-

ren lehengusu batek eraman ninduen. Itzel gustatu zitzaidan. Han ziren Zarraga, Arakistain, Gallartako Txiki-toa, ... koadro on-ona zen.

Artean beti esku pilotan jokatura zeunden?

Bai. Eta aitaren lehengusuak galdetu zidan: "Pala jokatu nahi duzu?". Eta nik baietz, ahalegindu nahi nuela. Aitaren lehengusua Arakistainen laguna zen eta hark pala bat egin zidan. Euskaldunako kantxa-zainak ere bertako pilota eskolara joateko esan zidan. Euskaldunara goizeko hamabiak aldera Bilboko negozio gizonak

joaten ziren palan jokatzera eta haiek amaitu ostean guk jokatzeko genuen. Primitan jokatzeko genuen. Gero Zabalbidera ere hasi nintzen. Sasoi hartan Zabalbidekoa pilota giroko frontoia zen, bete-betea. Batez be, esku pilota. Domekero partiduak izaten ziren: Atano, ... Eta aste barruan zaletu asko joaten zen jokatzera. Ni arratsaldean joaten nintzen. Eta kalitate hartu nuenean Euskaldunaren txanda eman zidaten. Goizez entrenatu eta arratsaldean partiduak ikusten.

Beraz, frontoirako bizi zinen?

Bai. Pilotari izan gura nuen. Ni nahiko

autodidakta izan naiz. Nire kabuz ikasi nuen sarea egiten, palaz ondo jotzen, ... Euskaldunako pilotarigaietarik batzuk debutatzera heltzen ziren eta beste batzuk ez. Baina urtero afizionatuontzako txapelketa egiten zen eta handik beti ateratzen zen baten bat debutatzeko. Enpresari ere interesatzen zitzaion. Eta gorpil horretan ni ere sartu nintzen.

Noiz egin zenuen debuta?

1946ko otsailean. Gertatzen dena da pilotan jokatu baduzu badakizu zure gorputza mugitzen, pilotaren

bila joan behar duzula itxaroten egon barik. Hori dena ikasi behar da, norberaren akatsak zuzendu, besoa osorik askatu behar duzula indarrez jotzeko... Azken hori fisika problema hutsa da: abiadura, distantzia, ueña. Pilota hemen edo hor jotzea oso diferentia da...

Eta hori dena ez zenuten pilota eskolan ikasten?

Ez. Han lau kontu minimoak. Han batez ere jokatu egiten genuen eta gero, jakina, norberaren dohainak. Baina gazteari hori dena azaltzen ez bazaio, zailtasunez inguratuta ikusten du bere burua palan jokatzeko eta, horren ondorioz, ez duenez gozatzen, utzi egiten du. Horrela, kirol errazagoetara jotzen dute: pala laburra, paleta, frontenisa, ... Horiek kirol errazagoak dira, baina ez dute ematen palaren poza. Poz hori bizi behar da, jokatzeko, bestela ez duzu ulertzen. Ez baduzu jokatu, ez dakizu baloratzen. Horregatik, gero eta zaletu gutxiago dago. Eta gainera, lehen ez bezala, orain ez dago baserritik ateratzeko premia hori. Jendeak beste interes eta pizgarri batzuk dauzka. Kanpoko kirolak be heldu dira. Gure herriak beti besoak zabalik hartu ditu kanpokoak, eta kirol arloan berdin: futbola, saski baloia, eskubaloia, ... Deportibon eskatu izan dute frontoia paddle pista gisa atontzeko. Deportibon, Bilboko palaren sehaskan. Orain Deportivoko bazkideek pala jaialdi bat doan ikusteko aukera edukita ere ez dira joaten.

Beste faktore bat izan liteke pilota modalitate asko daudela eta denek ezin dutela profesionalekin iraun? Aurrera doazenak erosoena dira.

Baina esku pilota ez da horrela...


Esan dezagun esku pilotarekin zer gertatu den: esku pilota kinka larrian egon zen eta Bizkaiko eta Gipuzkoako herri handi batzuetako udalek diruz lagundu zituzten enpresak frontoiak irekita edukitzeko. Eta gero telebista sartu zen, diruarekin. Eta hori asko igarri zen. Baina palarekin telebistakoek diote ez dela berdina, ez dela ondo ikusten. Nik nire iritzia daukat. Baina esku pilota horregatik suspertu da, kanpoko eragileek diruz lagundu dutelako.

Zelako karrera egin zenuen pilotari gisa? Euskalduna frontoira lotuta egon zinen, ezta?

Bai. Nik zorte txarra eduki nuen. Nire karreraren unerik garrantzitsuetan lesio luzeak eduki nituen, batez ere belauneko lesio larri bat. Nik Euskaldunaren pilotari gisa jokatzeko nuen baina horrez aparte lan egiten nuen. Pilotan ez nintzen figura izan, baina pilotari handi guztiekin jokatu nuen: Gallartako Txikito, Agirrebengoa, Zarraga, Oroztarrak, Amorebieta, Begoñes VII, ... Erdi mailako pilotaria izan nintzen.

Begoñes aitatu duzu, baita Zabalbideko frontoia... Aparteko zaletasuna zegoen Begoña aldean?

Begoñan Begoñes izenekoen sorta famatua izan zen. Begoñes I, Juanito, izan ei zen palaren iraultzailea. Bera hasi orduko esku-pala izeneko pilotekin jokatzeko zuten, oso motelak, eta ondorioz, tantoak luzeak izaten ziren. Gero pilota biziagoak ekarri zituzten. Ahozko tradizioaren arabera, Juanitok zesta, erremontean eta palan jokatzeko zuten eta bera hasi zen airez jotzen, botea egin baino lehen. Horrela bizitasun



gehiago eman zion. Bera baino lehen esku pilotan lez jokatzeko zuten palan, esku pilotatik zetorrelako. Bere nobedadeari esker hasi zen pala mundua aldatzen. Zabalbidetik gehiago atera ziren: Gaintza I, Abasolo, Azurmendi, Arrieta Santutxukoa, Zabalbide anaiak -Zabalbideko frontoian bertan bizi zirenak-, ... Egia esanda, nik Begoñan denbora gutxi egiten nuen, Bilborako joera neukalako. Baina Begoñan ere lagun asko egin nituen.



Zuen gurasoek txakolindegia eduki zuten, Gallaga...

Bai, batzokiaren azpian, sindikatuaren alboan. Ni frontoira joaten nintzen eta gero txakolindegira. Partidu egunetan, amaitutakoan, dutxatu eta arin-arin txakolindegira, laguntzen. Begoñan sekulako afizioa zegoen 'rebotillo'n pilotan jokatzeko. Hura zen Begoñako Errepublikaren etxeko arkupea. Bertan esku pilotan jokatzeko zuten. Saltsamaltza handiak izaten ziren. Esku pilotariak egiten zituzten: Pajarito, Villanueva suamatatzailea, ... Batzuetan abantailak ematen zituzten. Alberto Egiak arkuak kanpotik inguratu behar ei zuen pilota jo baino lehen. Eta beste batzuek jokatzeko zuten batentzat horma guztiek balio zutela eta bestearentzat frontisa baino ez... Pilota giroa zegoen.

Zuk ez, baina beste pilotari batzuek Madril edo Bartzelonara jo zuten...

Bai. Euskalduna zarratu zutenean nik pala uztea erabaki nuen. Bartzelona eta Madriletik etorri ziren gure bila eta batzuek ezetz esan genuen eta beste batzuek eskaintzak onartu zituzten.

Bitxia kontua, Bilbokoa itxi ostean Euskal Herrian pala frontoi gehia-

gorik ez eta kanpora jo beharra...

Ez zegoen besterik. Lehen Bilbon asko izan ziren baina denak galdu ziren. Denak kendu zituzten etxeak egiteko. Eta frontoirik ez badago, non jokatu da? Gainera, frontoi-plaza izan behar da, umeez joka dezaten gogoia daukatenean.

Azken urteotan, ostera, pala profesionala Bilbon baino ez da izan. Munduko palaririk onenak hemen ditugu. Hori baloratzen jakin dugu?

Nire ustez, ez. Lehen esan dizudan bezala, euskaldunak beti hartzen du aintzat kanpoko eta berea bazter uzten du, baliorik ez baleuka bezala. Hori da benetako akatsa.

Gaur egun pala barik gaude Bilbon, baina Diputazioak diruz lagunduko duela esan du...

Nire iritziz, esku egokietan gelditu da pala. Diputazioa erakunde arduratsua da. Pala berriz edukiko dugulakoan nago. Pertsona perfekturik ez dago, horregatik asmoak baloratu behar ditugu. Eta asmoak onak dira.

Zelan ikusten dituz gaur egungo pala pilotariak? Lehengoek baino maila hobea daukate?

Nire ustez ez, kirolaren beraren gainbeheragatik. Lehen askoz be mutil gehiagok jokatzeko bazuen, errazagoa zen kalitateko pilotari asko ateratzea. Orain oso jende gutxi badabil, pilotari onak ateratzeko aukera gutxiago dago.

Zu Deportivoko pala eskolako arduraduna izan zara. Zer egin daiteke pala jokoa sustatzeko?

Produktu bat saldu behar duzunean, iragarri egiten duzu, bere kalitateak erakusten dituzu, bere onurak, ... Hori gainerako arloetan ere erabil daiteke, eta palan be bai.

Pala herriarena da, beste ondare asko bezalaxe. Zaindu ezean, galduko da. Ez du ardura galtzen bada? Nik ez dakit konponbidea non dagoen. Hala ere, orain Diputazioa sartu da eta gainera pilotarako munduko batasuna sortu dute eta, printzipioz, onuragarria izango dela pentsatuko dugu. E-mailak ederrak direla, ederto baten. Ez badira hain onak? Gutxienez ahalegina egin dute. Pena litzateke Bizkaian garatutako kirola alferrik galtzea. Ze jokatu Bizkaian jokatu da, gehien bat. Eta Bizkaiko negozio-gizon askok palan jokatu izan dute euren aisialdian.

Pilotariren bat aukeratzeko eskatuz gero, zein hartuko zenuke?

Bakarra ezinezkoa da. Bakoitzak berea eduki du. Niri asko gustatu zitzaidan Zarraga. Josexo Agirre, Arakistain, Gallartako Txikitoa, ... Gaitza da esaten, bakoitzak berea eduki duela: Amorebieta, Oroz III, ... Egundoko pilotariak eduki ditugu. Gaur egungo pilotarietarik Gaubeka oso konpletua da.

Sineskeriak serio hartzen dituzu?

<p>MILA (AZKOITIA)</p> <p>EGIA ESAN, ASTEARTEA ETA 13A BEZALAKO DATAK NOIZ DIREN ERE EZ NAIZ ENTERATZEN IA.</p>		<p>ANA (BARAKALDO)</p> <p>EZ DUT HORRELAKOETAN SINESTEN, TXORAKERIA HUTSA DIRA ETA.</p>	
<p>EDORTA (SAN INAZIO)</p> <p>HILAK 13 ZITUEN ETA ASTEARTEA ZEN NIRE AMA OPERATU ZUTENEAN ETA EZ ZITZAION EZER GERTATU.</p>		<p>IRANTZU (ZAZPI KALEAK)</p> <p>SINESKERIA GUZTIAK BERDINAK DIRA, EZ DAUKATE ZENTZURIK EDO OINARRIRIK.</p>	
<p>CARLOS (BASURTU)</p> <p>ASTEARTEA ETA 13A ETA HORRELAKO SINESKERIEK EZ DAUKATE OINARRI ZIENTIFIKORIK, BERAZ EZ NAIZ KEZKATZEN.</p>		<p>JESUS (TXURDINAGA)</p> <p>EZ NAIZ SUPERSTIZIOSOA BAINA, EGIA ESAN, ASTEARTEA ETA 13 DIREN EGUNEK BELDUR APUR BAT EMATEN DIDATE.</p>	
<p>PATXI (SARRIKO)</p> <p>EZ DUT SINESTEN, BAINA JENDEAK SINESKERIA HORIEI BURUZ ESATEN DITUENAK ENTZUTEA GUSTATZEN ZAIT.</p>		<p>JUANITA (ARBOLANTXA)</p> <p>EZ DOT KASURIK EGITEN, GAUZA TXARRAK EDONOIZ ETORRI LEIKEZ ETA.</p>	



PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!



Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak

Garraioak



Deitu: Jabi: 607 43 17 91 Txema: 607 19 68 33

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Udaberriko bertso saioak apirilaren azken asteburuan hasiko dira

Urtero lez, bertsolari planetako selekzio ederra hurbilduko da Santutxura

Aurreratuta dator aurten Udaberriko Bertso Saioak egitaraua. Apirilaren akabuko asteburuan hasiko da eta maiatzaren hurrengo hiru asteburuetan jarraituko du. Urtero lez, bertsolari bikainez osatu ditu saioak Santutxuko Bertso Eskolak. Lehenengo emanaldia Begoñako udaltegian izango da. Bestiak, Karmelo plazan.

Azken urteotan Santutxun finkatu dira Udaberriko Bertso Saioak. Publiko aldetik erantzun polita daukate eta bertso giroa zabaltzen lagundu dute. Aurretik Areatzan, Bidebarrietan eta Deustuan egin izan dira, baina azkenaldion Begoñako errepublikako bazter hori bilakatu da bertso plaza nagusia.

Hasi, esan legez, arinago hasiko dira aurten. Izan ere, ohi bezala maiatzean barik apirilean ekingo diote egitarauari. Eta beti zapatuetan egin badituzte ere, lehenengoa barikuan izango da: apirilaren 27an 'Emetik bertso kabareta' ailegatuko da, Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Oihane Perearen eskutik. Arabar bat eta bizkaitar bi bestelako bertso saio bat eskainiz. Euren hitzordua arratsaldeko 8etan ezohiko lekuan: Begoñako udaltegian.

KARMELO PLAZAN

Hurrengo saioak betiko legeari jarraituz antolatu dituzte. Hurrengo hiru zapatuetan izango dira, Santutxuko Karmelo plazan eta eguerdiko ordubetetan hasita.



Maiatzaren 5eko plantela ez da edozelangoa: Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze eta Andoni Egaña megatxapelduna. Horra hor koadrila elegantea bertso saio baterako!

Hurrengo asteburuan Bizkaiko Txapelketako finaleko lehenengo lauak elkartuko dituzte berriro ere. Xabi Paya txapeldunak alboan edukiko ditu, oholtza gainean, Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes eta Fredy Paya. Ez da kartel makala, ez horixe.

Udaberriko bertso saioak maiatzaren 19an amaituko dira. Egun

horretan Bizkaia eta Gipuzkoako bina bertsolari igoko dira eszenatikira. Alde batetik, Jon Maia eta Sebastian Lizaso. Bestetik, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Gozatzeko moduko saioa izango da, duda barik.

Beti bezala, antolakuntzan Santutxuko Bertso Eskolak jardun du eta Bilboko Udalaren babesa edukiko du. Saio guztiak doakoak izango dira. Gaiak Bertso Eskolako kideek eurek jarriko dituzte. Beste behin, udaberriak bertsolarietaz disfrutatzeko lau aukera eder ekarriko ditugurera.

PEDRO UDAONDO HIL DA.-

Martxoaren 17ak Pedro Udaondo mendizalea kendu zigun. Europako Mendieta eskalatzen ari zela hirurehun metrotik behera amildu eta hilik suertatu zen. Udaondo 73 urte zeuzkan eta euskal eskalataileen artean ospe itzela zeukan bere karrera luzeari esker. Azken agurra Begoñako basilikan eman zioten ehunka lagunek. Argazkian, bere bihotzeko Naranjo Bulnosen Pou anaiekin. Eskuinetik hasita lehenengoa da.



ZAHAR EGOITZA ZABALDU DUTE.-

Sorgintxulo gaztetxea zegoen lokaletan zaharrentzako egoitza -Karmelo eguneko egoitza- inauguratu dute martxoan. Bertan Bizkaiko Foru Aldundiko eta Bilboko Udaleko agintariak izan ziren. 60 lagunentzat atondu dute. Inaugurazio ekitaldian, kanpoan protestaka ari ziren gazteen gainean egin zuen berba Jose Luis Bilbao ahaldun nagusiak, esanez ba ze "gazte horiek konturatu behar dira eurak ere inoiz zahar-etxe honen premia eduki dezaketela".

OTXARKOAGO! PROGRAMA, MARTXAN.-

Urtea akabu bitartean Otxarkoagan 50en bat ekitaldi egingo dituzte kirol eta kultur mailan Otxarkoago! egitarauaren barruan. Bestiak beste, tailerrak -gazteentzako sukaldaritza apirilaren 18 eta 26 bitartean-, kirola -saskibaloia txapelketa apirilaren 10tik 13ra-, zine emanaldiak eta bestelako ikastaroak egingo dituzte. Gainera, lehenengoz, GO! sariak emango dituzte Otxarkoagaren alde lan egin duten pertsonen eta elkarten artean. Hautagaiak honako hauek dira: Diego Bergizes, Mikel Toral, Pepe Extremadura, Oskar Tabuenka, Lorenzo Esteban, AFO, Veracruz ikastetxea, Goizalde eskaut taldea, auzo-etxea eta kaputxinoen komunitatea. Argazkian, musika kontzertua Otxarkoagan izako ekainean.



MAIATZEKO JAI ZUBIA

PARIS	179,00 Euro
LISBOA	205,00 Euro
GRANADA	215,00 Euro
LLORET	106,75 Euro
BENIDORM	109,75 Euro

mikelizargi@euskalnet.net

Izargi Bidaiak

GRUPO STAR VIAJES www.ibiltari.com Tel. 94 473 00 45 Fax 94 412 07 28 48004 SANTUTXU - BILBO



ADI
ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL
JURIDICO - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza

ETXEBARRIA PARKEAN BIDE GEHIAGO.-

Bilboko Udalak bide gehiago zabalduko ditu Etxebarria parkean datozen asteetan. Zuhaitzak ere 29 ipini dituzte berri, astigarrak eta lizarrak tartean direla. Baita 35 urteko arte handi bat ere. Zuhaitz Eguna ospatzeko egin zuten landaketa martxoaren 26an, inguruan ELA eta LABeko ordezkariak lorategietako beharginen "lan baldintza eskasak" salatzen zituzten bitartean.



GARAI LORATEGIETAKO APARKALEKUA.-

Martxoaren 12an inauguratu zuten Txurdinagako Garai lorategietako aparkalekua. Denetara 259 auto hartzeko modukoa bada ere, zabaldu orduko 89 leku besterik ez zeuden salduta. Beste 24 saltzekotan dabilta. Batez besteko prezioa 13.500 eurotan ibili da.



PINTXO IKASTARO GOZOA.-

Otsail eta martxoko hiru eguaztenetan Berbalagunak antolatutako pintxo eskolak eman dituzte. Ikasleek -gehienak berbalagunak, baina baita tabernari bat ere-pintxo hotzak, beroak eta bereziak prestatzen ikasi dute. Lehenengo teoria eta gero, ordu biz, praktikak. Eta, onena, amaitutakoan 'pintxo afaria'. Argazkian, irakaslea eta ikasleetarik batzuk Abante txokoa.

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

J. Ruiz Instalador Autorizado

*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
 *Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
 *Porteros automáticos y videoporteros
 *Aire acondicionado

Juan de Gascuña nº9 Loma 48004 Bilbao Fax:944111652-Tf:656703855

BI-96.0-FM
 Bilbo Hiria irratia
www.bilbohiria.com

Arabellan oinezkoentzako aldeak atonduko dituzte

Obrak uda ostean hasi nahi ditu Bilboko Udalak

Arabella etxaldeko auzotarrek proiektua aurrera atzerako ezinbestekoa zen lagapena adostu ondoren, etxaldeko argiteria eta erdialdeko eskailerak hobetuko dira. Azke-

nean, errepidea ez da handituko, gaur egun dauden joan-etorriko errail bana geratuko liriteke, beraz. Auzoa hobetzeko lanok uda ostean hasiko dira, bi multzotan bereizita.

Testua: Itxaso Perez
Argazkia: BERTON

Lehenengoan, Zurbaranbideko espaloi bietan, Arabella auzoaren eta Ugarteburu etxaldearen artean, jen-

hobetzeko. Hesien hasieran eta amaieran oinezkoen pasabideak jarriko liriteke gune horietara era erosoan sartu ahal izateko.

Bigarren aldea Zabalbide kalean dago, Zurbaranbide eta Zubisiku bidearen artean. Bilbotik irteteko

koen aldeak gainera Irrisgarritasunari buruzko Legea beteaz egokituko dira proiektuko alde guztian.

UGARTEBURU
 Ugarteburuko zatiari dagokionez, Barruti Kontseilua zain dago auzoki-



dea egoteko eta umeak jolasteko guneak sortu nahi dituzte. Umeen jolasguneak adinen arabera berezirik egongo liriteke. Horrez gain, oinezkoen bideak eta atseden-lekuak lorategiz eta zuhaitzez berezirik egongo liriteke. Atseden-lekuetan jarlekuak ipiniko liriteke auzotarrek non egon izan dezaten.



Galtzada eta espaloiak ere bananduko liriteke hesi berdeen bidez oinezkoen aldeko segurtasuna

errepidea kale bihurtzea da asmoa. Ondorioz, oinezkoentzat egokiagoa izango litzateke eta oinezkoentzako oztupoak kentzeaz gain, ibilgailuen zirkulazio handitik babestuz gertatu litzateke alderdi hori. Horretarako, eskaileretako malden aldean hesi berdea ipiniko dute. Gainera, espaloiak zabalduta eta zirkulaziotik berezirik egongo den atsedan leku bat sortuko dute.

Oinezkoen pasabideak eta oinez-

deak noiz ados jarriko proiektu bat definitzen hasteko. Gaur egun ideien bat edo beste jaso dute Barrutian. Izan ere, hasierako proiektuan zeuden aparkaleku guztiak desagertuko liriteke plazatik, eta bertan hainbat denda daudela, horko dendariak zamalanak egiteko zonaldea sar dezaten eskatu diote Barrutiari. Dena dela, auzokideen artean adostasunik egon ezean, ezin diote alde horretako obrei hasiera eman.

E R R I K A R I A K



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

hartu bertonean etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertonean aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo
 Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.
 Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia:
 Herria: Herrialdea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

Sinadura

SUPELEGOR (Koba) (1050 M.) URIGOITI (OROZKO)

Orozkon, Zubiaur auzoan, Ibarrarantz doan bidea hartu behar dugu. Ibarrik Arteara Bikotxganeko errepidea hartu barik Usabel auzotik zehar jarraituko dugu Urigoitiraino.

Eliza ondotik irteten den bidea jarraituko dugu eta pinudi artetik igoko gara aldapa gogorrean; gero Atxak eta Axkorrigan haitzen ondotik pasatu behar dugu eta hemendik bidexka bat hartu eta baso txiki samarretik zehar pasatzen da bidea (basaranak eta pagoak daude). Hola helduko gara Atxulaur ate ondoan dagoen iturriraino.

Atxulaur begitik pasatu behar dugu eta pixka bat eskumarantz eta behe-rantz jarraituko dugu, lur-rean jarrita dagoen burdinazko txartelera heldu arte. Txartel honetan Supelegorrera nondik joaten den argitzen da.

Lehen bezala, berriro eskumarantz (Axkorrigan bide berberetik) eta laster aurkituko dugu ataka bat, estua baina beharrezkoa, (jendea eta abereak banan-banan pasatzen dira hemendik).

Hau pasatu eta gero, ezkerretik joan behar dugu harri handi artean, eta beste ataka bat

igaroko dugu; pasatu ondoren zulo bat ikusiko dugu.

Hemendik jarraituko dugu; bi kobak ikusiko ditugu, bata eskuman eta bestea ezkerrean eta zuzen jarraituz behe-rantz joko dugu Supelegor koba ikusi arte.





IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navregalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIEL RESTI, 30 4. G
TXURDINAGA


☎ 94 412 82 74

O.P.E: 02/9/97



MESÓN GURETXE

Santutxuko poteo gunean




Euskararen Astea mendian izan da, Santutxu Mendizale Taldearen eskutik, eta plazetan dantzan, ikastola, eskola, dantza talde, txistulari, gaitari eta erraldioen laguntzaz. Giro aparta eta jende andana kaleetan. Euri zemaia jaramonik ere ez!

A
R
O
G

EUSKARAREN ASTEAK EUSKARAZ ZIPRIZTINDU DITU BAZTERRAK

Zazpigarren edizioak ere ikastetxe eta elkarte askoren babesa lortu du

Euskara gaztetxoaren esku atera da Santutxu eta Txurdinagako bazterretara martxoaren 23tik 30a bitartean. Elkarlana izan da horretarako giltzarria. Hamaika elkarte eta ikastetxe auzolanean jardun dute denen indarrak batuaz euskararen erabileraren aldeko aldarri ozena egiteko. Abisua martxoaren 17an jo zuten, Gaztedik antolatutako Xiberoa Egunarekin eta, ostean, eguraldi zantarrari aurpegia emanez, hamaika saio, olgeta, kantu, zinema eta antzerki emanaldi izan dira. Guk lehenengo asteburuko ekitaldi biri erreparatu diegu: mendi irteera eta dantzari eguna. *Begitu, begitu zelako giroa!*



HAZI ETA HOBETU



Euskadi



BEGOÑAZPI IKASTOLA

Jesús Galíndez, 15 • 48004 BILBAO
Tel 94 400 53 00 - Fax 94 400 53 01
www.begonazpi.org

E
H
E
T
I
K
G
O
R
A

28 larra zegoanean ontzean, zir, zir, zir, zaharra aldamenean... zurrak lotzen, kir, kir, kir, kir...

Zun eta zun, zun eta zun, Isabela, Manuela, Margarita, Katalina, zun, Peru, laga idazu, Mari, oratu idazu.

Etxeko andrea ari zanean sardinak erretzen, txir, txir, txir, katar saloa zoko batean, muturra mizkatzen, psi, psi, psi...


Zun eta zun, zun eta zun, Isabela, Manuela, Margarita, Katalina, zun, Peru, laga idazu, Mari, oratu idazu.

BERTSOLARIAK (Egilea: Sobin Gereñik) Bertsolaria tristerik dago gaur herria ikustean: umak erderaz, zaharrek erderaz, eskalak nortasuna galdurik.

Zelan kanta bertsoak horiet ez badira suskaldunak? Bertsolaria ames dago euskera zabalduko dela.

APARRETA (Hitzak: Agustín Zubikoreta) Aparreletan dago itxaso, olatuak bitsetan arto. Zure orpegiaren irudi samur eta otzegi...

ESNE SALTZAILLEA (Hitzak: Nemesio Etxezola) Bidean zijoan pinpin-pirin esne-saltzaille lirioak, esku batean ontzia... Ba-zirudian panpina.



Egilea: CINSÁ - Av. del Ejército, 18, 2º - BILBAO-14 Depo. Legat. BL-1.024 - 1970 - Imp. AMADO - Bilbao

CIN - 170 45 r. p. m.

OÑARRIAK arbaso Bilbo-n sortu zen 1969 urtean, eta hau da bere lehenengo disko. Onda ezagunak dira, hainbat talde berrak sortu dituzte...

OÑARRIAKEN ETA 'HAUR KANTUAK' DISKOAK PLAZARATU DITUZTE

Oñarriak taldea Santutxun 1968an sortutako plaza taldea izan zen. Horren jarraipena 1977an 'Haur Kantuak' diskoak izan zen. 70. hamarkadan egindako lana galduta zegoenez Jon Etxebarrik eta Jabier Imatzek berriro ere bildu eta disko batean plazaratu berri dute. Bihotzak eskatu dielako egin dute lan hori, galduta zegoen materiala berreskuratu nahi izan dute eta berriz ere plazara aurkeztu nahi izan dute. Gainera, Xabier Coellori omenaldia egin nahi izan diote bera izan baitzen bi proiektuetako sustatzailea.

Testua: Ane Zabala / Argazkiak: Berton

Oñarriak orkestra 1968 urtean sortu zen. Elkartu ziren bost gazteek orkestraren oinarriak zeintzuk izango ziren argi izan zituzten. Zazpi oinarri idatzi zituzten lehenengo batzarrean eta hortik etorri zen orkestraren izena: Oñarriak. Gazte hauen asmo eta lehenengo helburua euskaraz abestea zen.

Taldearen sorreran Josu Abaunza, Xabier Coello, Erramun Fernandez, Iñaki Aizibar eta Jon Etxebarri egon ziren. Iturribide kaleko patronatuan lehenengo entseguak burutu zituzten. Handik Basurtuko kaputxinoetara joan ziren eta, azkenik, Eskolapios ikastetxean bukatu zuten. Xabier Gereñoren hitz ostean, musika tresnak finantzatzeko dirua lortu zuten. Orduan, tresnak erosi eta emana-

naldietatik ateratzen zen diruaz pagatzen joan ziren; bi urtetan justu-justu pagatu zituzten tresnak.

Oñarriak plaza orkestra zen, kartara eginiko jaialdiak egiten zituzten. Esaterako, bertsolarien ostean kantuan orduak ematen zituzten. Jon Etxebarrik

Errenteriako emanaldia gogora ekarri digu, jendetza itzela bildu zenekoa, euren emanaldietatik jendetsuena.

Oñarriak taldeko musikariak plaza gizonak ziren, momentuan zeuden premiak ikusten zituzten eta horren arabera jotzen zuten. Kantuaren letra euskaraz prest ez zegoenean bertsio melodikoa egiten zuten. Adibidez, Julio Iglesiasen 'La vida sigue igual'. Gaur eguneko berbena baten modukoa zen, nahiz eta garai hartan orkestra deitzen zioten.

Herrietara joaten zirenean Jon Etxebarrik manager lana egiten zuen, baita garraiolariarena edo, berak esan bezala, behar zen edozein gauza egiteko prest zegoen. Emanaldi bereziak ere egiten zituzten. "Behin herrietara helt-

A collage of images and text related to the Oñarriak band. It includes a list of songs under the heading 'OÑARRIAK', a section titled 'EUSKAL HIT PARADI' with photos of the band members, and a caption at the bottom: 'Maria Jesus, Gotzon, Nekane eta Asier Aretxabaleta Egia. Markinarraik'.

zen ginenean herriko premietan sartzen ginen, hau da, kalejira egin behar bazen, batek atabala hartzen zuen eta besteek txistuaz kalejira jotzen genuen. Inoiz mezan organoa jo behar bazen taldeko teklistak, Josu Abaunzak, jotzen zuen. Taldea bertako jai batzordearen barruan sartzen zen".

1970 urtean diskoa grabatzeko aukera izan zuten, baina Bilbon ezin zitekeen egin. Beraz, Madrilerara joan ziren diskoa grabatzera, hegazkinez, Fonograman hain zuzen ere. Egun bitan egin ziren disko kantuak grabaketak bi pistatako magnetofono batean. Oñarriak lau kantutako mini LP-a plazaratu zuen azkenik.

HAUR KANTUAK

Oñarriaken jarraipena disko orogarri honetan ateratzen diren beste bi diskoak dira: 'Haur Kantuak bat' eta 'Haur kantuak bi'. Disko orogarrian bi proiektu haietan parte hartu zuen partaide bada; Xabier Coello 2003an hil zena, Oñarriaken liderra eta dena posible egiten zuena.

1977an euskaraz ikastoletarako materiala egin behar zen, metodologia globala egiten hasi baitzen, Saioka deiturikoa, OHOKo ikasketak burutzeko. Saioka metodologia arloka egiten joan zen. Arloetako bat musika izan zen. Amaia Bihar izan zen musika arloaz arduratu zena. "Lehenengo ikasgaien elkartasuna landuko bagenuen, orduan

jolasa izango zen gaia, orduan jolasaren inguruan egiten genuen kantua". Horrela, haur kantuak diskoko kantuak sortzen joan ziren. Iñaki Eizmendik eta Jon Etxebarrik egin zituzten kantuen letrak.

Haur kantuak bi disko atera zituzten eta denetarik dago. Bluesa, rocka eta jazz. Horretan Javier Imatzen gitarrak ekarpen handia egin zuen, kantuen



moldaketak egin baitzituen.

Kopiak banan-banan egin ziren Jon Etxebarriaren etxean. Gero ikastola guztietan banandu ziren, ondo jasoak baitziren ikastoletan. Orduan, kalitateko grabazioa egitea erabaki zuten. Horrela sortu zen Donostian disko biak grabatu izatearen asmoa. Haur kantuak disko bietan Maria Jesús, Gotzon,

Nekane eta Asier Aretxabaletak kantatu zuten. Argazkian Santutxura entsegutara etorritako argazkietan.

MATERIAL GUTXI

Etxebarrik esan digunez, "hutsune bat zegoen betetzear, bai hasieran Oñarriak taldearekin eta baita haur kantuetan. Material askorik ez zegoen, Imanol Urbietta zebilen materiala egiten, sentikortasun handikoa, gu lanean hasi ginenean bagenekien erantzun ona izango zuela materiala hau".

Javier Imatzek oroitzapen onak ditu: "Lana oso gogorra izan zen, baina oso oroitzapen gozoak eta onak ditut. Asteburuetan joan behar izaten ginen Donostiara grabatzera gaztetxoekin. Entseguak ere ez ziren gutxiago izan. Lehenengo, San Nikolas ikastolako abesbatza eta Laurokoa etorri ziren eta, azkenean, Xavier Coelloren lehengusu-lehengusinekin egin genituen kantuak. Baina, noski, entsegu asko egin ostean, toma bakarrean grabatuta daude kantuak, gainera, mozketarik egin gabe".

Lagun artean banatzeko egin dute disko orogarri hau, Ez da saltzeko egindako produktua, ez du inongo balore komertzialik. Borondatearen aurka bahiturik egon den materiala berriro plazara ekarri izan nahi dute. Jende artean banatzea da disko orogarri honen helburu nagusia.

ANGEL HARATEGIA - URDAITEGIA Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe Mañari Médico M. Pedro Cortés, 9 48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

GOJIAN S.C.L. LAN BERTIKALAK Pintura lanak etxaurre eta patioetan Ke-irteerak eta Ur-hodiak Eraikinetako edozein konponketa ANDAMIO BARIK TELEFONOAK: 630 08 09 38 659 45 16 22

horoskopoa

**Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**

Zuk baino gehiago dakianik topatea gatxa da... behintzat zerbeza kontuetan.

**Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**

Soloa saratu, satsa eroan eta zabaldu ostein, badago oraindinoko eginkizunik. Erein behar da, motel. Zorionez soloa ez da lar zabalda...

**Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**

Ze laranja erdia eta ze laranja ondo! Zuk osoa behar dozu, bestela ez jatzu iraungo eta...

**Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**

Beharrean baten batek kaparradea emoten dotsu. Zuk eutsi, laster joango da-ta.

**Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**

Tangoak jantzaten ikasi behar ei dozu. Justuguneko erromerian beste behin espektakulua emoteko asmotan zabilz ala?

**Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**

Segapoto-dependenzia gaixotasun gogorra da. Oraintxe hasi dira lelengo tratamenduak, esperimentalak badakizu. Bitartean, probatu telefonoa komunetik behera botatzen.

**Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**

Nonork esan behar dotsu egia eta guri tokatu jaku. Ez dozu sekulan lortuko pisu bat erosteko adina diru. Beraz, hoba dozu kubatetan gastatu.

**Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**

Koipea hari, koipea besteari... Zuk ez dakizu berba txar bat esaten, ezta?

**Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**

Ligateko eskolak hartuko dozuzala entzun dogu. Akademietan asko ligaten dalako izango da, ezta?

**Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**

Edurra ondo aprobetxa dozu. Orain aste santuko oporrak hondartzara. Zu bizi zara zu!

**Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**

Noiztik zagoz holan? Banengoen ni ba! Zu maiteminduta zagoz!!

**Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**

San Mames barria behar ei dogu, santua geugaz ahaztu dala emoten dau eta.

agenda

APIRILAK 3KEROBIA. ARITZ SOUND SYSTEM.
DJ DZ. GAZTETXULO ALDIZKARI
BERRIAREN JAIA. KAFE ANTZOKIA.
22:00ETAN.**APIRILAK 8**

ABERRI EGUNA.

APIRILAK 10-13OTXARKOAGAKO SASKI BALOI
TXAPELKETA. AUZOKO SEI EKIPO
FEDERATUEK HARTUKO DUTE
PARTE. CENTRO FORMATIVON.**APIRILAK 13**SKALARIAK. DJ MAMARRATXO.
KONTZERTUA. SANTANA27
ARETOA. 20:30EAN HASITA.**APIRILAK 15**MENDI TXANGOA. UARRAIN (1.346
M). LARRAITZ. SANTUTXUKO
MENDIZALE TALDEA.**APIRILAK 25**JOXEAN SAGASTIZABALEK
'KUTSIDAZU BERRIZ, IXABEL'
AURKEZTUKO DU. ASAPALAREN
IRAKURLEAREN TARTEA. ARBIDEA
KALEKO EUSKALTEGIAN.
20:00ETAN.**APIRILAK 26**ANTZERKIA. 'LA POSADERA'.
TIERRA DE SUEÑOS TALDEA.
OTXARKOAGAKO UDALTEGIAN.
19:30EAN.**APIRILAK 27**THE BON SCOTT BAND.
KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIAN.
22:00ETAN.